

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO
GOBERNU SALAKO BATZORDEAK 2026KO MAIATZAREN 8AN
HARTUTAKO ERABAKIAK**

BERTARATUAK:

Presidente jauna

Ignacio José Subijana Zunzunegui jauna

Jaun/andreak

Luis Ángel Garrido Bengoechea jauna

María Josefa Barbarín Urquiaga andrea

Jose Luis Nuñez Corral jauna

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna

Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jauna

Jarduneko Gobernu-idazkari andrea

Ascensión Roncero Linares andrea

**LEHENENGOA – AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURTZEA
ETA ONARTZEA.**

Bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

**BIGARRENA.– AURREKO BILERAKO ERABAKIAK
BETEARAZTEA.**

Salari aurreko bileran hartutako erabakiak bete direla jakinarazten zaio.

ERABAKIAK

Salak bere egiten du Ignacio José Subijana Zunzunegui jaunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentek, Carlos Garaikoetxea Urriza jaunaren familiari bidalitako dolumina haren heriotzagatik. Carlos Garaikoetxea Urriza Eusko Jaurlaritzako Lehendakari izan zen.

Salak bere egiten du Ignacio José Subijana Zunzunegui jaunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidenteak, Ramoni González Abin andrearen familiari bidalitako dolumina haren heriotzagatik. Ramoni González Abin andrea Justizia Administrazioaren letradua izan zen.

1. Magistratuak eta epaileak

1.1. AZPEITIKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ETA INSTRUKZIOKO ATALEKO EPAILEEK 2026KO APIRILAREN 9AN EGINDAKO BATZARRA.

Azpeitiko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko Epaileen Batzarraren 2026ko apirilaren 9ko Aktaren berri eman zaio Salari. Honako hau dio, hitzez hitz:

«Azpeitian, 2026ko apirilaren 9an, Azpeitiko barruti judizialeko epaileen batzarra eratu eta honako hauek osatu zuten: Nagore Perez Hierro andreak, Azpeitiko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 2 zk.ko epaile titularra denak, eta Estefanía Carreño Núñez andreak, Azpeitiko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 1 zk.ko plazaren epaile titularra denak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskusiboa, eta Azpeitiko eta haren barrutiko auzitegiko presidentea, honako erabaki hau jakinarazi dute, AHO BATEZ: 1. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari jakinaraztea Fiskaltzak barruti judizial horretako gardien antolaketa-sistema aldatzeko eskatu duela.

Gaur egun, Azpeitiko barruti judizialean, guardiak asteartetik asteartera egiten dira. Asteartean guardian ateratzen den plazak delitu arinagatiko epaiketak egiten ditu egun horretan, bai eta seinalatutako Berehalako delitu arinen judizioak eta Presako Eginbideak ere.

Fiskaltzak jakinarazi digu guardiatik irteteko asteazkenera aldatzeko aukera dagoela, guardiako astea asteazkenetik asteazkenera eginez, eta egun horretan egingo direla delitu arinengatiko epaiketak, berehalako delitu arinen epaiketak eta presako eginbideak. Eskaera hori egiten da guardiak barruti judizial guztietan antzekoak izan daitezen eta alderdi bakoitzari esleitutako fiskalen antolaketa errazteko.

Epaileen batzar honek aho batez erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari gardien antolamendua aldatzeko aukera kontsultatzea, eta barruti horretako epaile titularrek ez dute eragozpenik jarri antolaketa aldatzeko."

Salak erabaki du jakinaraztea, Alderdi Osagarrien Erregelamenduaren 60.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, ez dagoela eragozpenik guardiako sarrera- eta irteera-eguna aldatzeko, betiere guardia-aldia errespetatzen bada eta berehalako epaiketak manu horretan aurreikusitako baldintzetan egingo direla bermatzen bada. Beraz, Azpeitiko Epaile andreen Batzarrari dagokio aldaketa proposatzea,

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Gobernu Salak onar dezan eta legezkontasuna kontrola dezan.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluaekin bat etorritik, akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezkontasuna kontrola dezan.

1.2. 2026KO KARRERA JUDIZIALEKO KIDEEI OPOR-PLANAK ESKATZEA.

Batzordeari jakinarazi zaio eskaera bat egin zaiela Salen Presidentetzei, Probintzia-azuztegi-tako Presidentetzei eta Autonomia-Erkidego honen lurralde-eremuko barruti judizialeko Epaileen batzarrei, **2026ko maiatzaren 20a baino lehen** bidal dezaten beren barruti judizialeko edo auzitegi-organoei eragiten dien 2026ko opor-planaren proposamena, Gobernu Sala honek onar dezan, eta berariaz adierazi zaie magistratuei eta epailei oporraldian beren artean ordeztu behar direla. Horren berri izateko, akta honi erantsitako instrukzioa igorri da, I. eranskin gisa.

1.3. BJLOren 160.7 ARTIKULUREKIN BAT ERABAKIA BERRESTEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO PRESIDENTETZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOA.

Salak aho batez erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jarduneko presidente andreak hartutako erabakiak berrestea, 2026-04-21ekoak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluaekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dioena hitzez hitz:

Ignacio José Subijana Zunzunegui izangaiari dagokionez, honako hau erabaki da:

"Aurreko jakinarazpena jaso denez, erregistra bedi. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentearen lanpostua betetzeari buruzko informazioa ematea erabaki da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 136. artikulua ondo onartzeko:"

1.- IGNACIO JOSÉ SUBIJANA ZUNZUNEGUI jauna

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea da.

Era berean, titular izendatu zuten jarraian zerrendatzen diren organoetan, eta gobernu-eginkizunak bete zituen jarraian zehazten diren destino eta aldietan:

- *Azpeitiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1.zk.ko Auzitegi-epaile titularra; 1992-04-01etik 1995-09-06ra bitartean, gainera, epaile dekanoren eginkizunak bete zituen aldi honetan.*

- Cadizeko Probintzia Auzitegiko Hirugarren Ataleko magistratu titularra, 1992-04-11tik 1995-09-06ra.
- Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Auzitegiko magistratu titularra, 1995/09/25etik 1998/11/02ra.
- Donostiako Zigor arloko 2 zk.ko Auzitegiko magistratu titularra, 1998/11/09tik 2002/07/09ra. Aldi horretan, zerbitzu-eginkizun hauek egin zituen, funtzio-aldaketarekin:
 - i. 2001/10/26tik 2002/06/12ra Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren atalean, Atal horretako presidente karguan.
 - ii. 2002/06/12tik 2002/07/09ra, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Lehenengo atalean.
- Donostiako epaile magistratu dekanoa 2000/01/28tik 2002/07/09ra.
- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Lehen Ataleko magistratu titularra, 2002/07/15etik 2021/04/16ra.
- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidentea, 2010-01-15etik 2021-04-16ra.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea 2021-04-29tik.

Ignacio Jose Subijana Zunzunegui jauna Auzitegi Nagusi honetako Gobernu Salako Batzordearen berezko kide izendatu zuten 2010eko urriaren 15ean, 2021eko apirilaren 29ra arte. Egun horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidente izendatu zuten.

Era berean, Gobernu Salako kide gisa parte hartu du bokaltza hauetan:

- Bulego Judizial Berriaren Batzordea.
- Donostiako barruti judizialean Bulego Judizial Berria ezartzea.
- Etengabeko prestakuntza.

2013ko abenduaren 13an, Erakundearteko Batzorde Mistoan sartu zen, gobernu-organo horren ordezkari gisa, Gobernu Salak izendatutako kide gisa, 2021eko apirilaren 29ra arte, egun horretan hartu baitzuen kargua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidente gisa, eta, orduan, Batzorde horretako buru izan zen Justizia eta Giza Eskubideen sailburu andrearekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea den aldetik, honako hauen presidentea da:

- Bidezaintza eta Askatasunen Batzordea.
- Arbitraje Batzordea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordea.

2014ko otsailaren 21az geroztik, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluko eta bertako lantaldeko kidea da, eta gaur egun ere halaxe jarraitzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidente gisa honako hauetan parte hartu du:

- .- EAEn espediente judizial elektronikoa ezartzeko Batzordea eta EAEn espediente judizial elektronikoen jarraipena egiteko Batzordea, 2022ko apirilaren 5ean eratu zenetik.
- .- Justizia Administrazioaren Batzorde Mistoan, 2022-2028 aldirako Justizia Digitalaren Plan Estrategikoa, 2021-2026 aldirako Justizia Digitalaren Plana, 2023-2026 aldirako desgaitasuna duten pertsonen sarbiderako Plana eta 2022-2030 aldirako Egoitza Judizialen Plana jarraitzeko.
- .- Epaileen, Fiskaltzaren eta Ertzaintzaren arteko Koordinazio Lantaldea.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta jakinaraz bedi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "

Aner Uriarte Codon hautagaiari dagokionez, honako hau erabaki da:

"Aurreko jakinarazpena jaso denez, erregistra bedi. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentearen lanpostua betetzeari buruzko informazioa ematea erabaki da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 136. artikulua ondo etarako:

1.- ANER URIARTE CODÓN jauna.

2014/09/12an, Bilboko epaile dekanoren kargua hartu zuen, modu eskusiboan. Ondoren, birritan berrautatu zuten, epea amaitu ondoren: 2018ko azaroaren 16an, 2023ko otsailaren 21ean.

2025eko abenduaren 31n, Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasun-arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoaren hirugarren xedapena aplikatuz, Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidente eskusibo bihurtu zen, gaur egun arte.

Era berean, honako organo hauetan izendatu zuten titular:

- Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Auzitegiko epaile titularra, 2002/05/06tik 2005/09/02ra, non epaile dekanoren kargua bete baitzuen 2004/07/01etik 2005/07/15era.*
- Bilboko Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Auzitegiko magistratu titularra, familiakoa eta desgaitasunaren arloan eskumen eskusiboa duena, 2005-09-21etik 2009-04-03ra.*
- Bilboko Merkataritza Arloko 2 zk.ko Auzitegiko magistratu titularra, 2009/04/14tik, 2014/09/03ra.*

Aner Uriarte Codón jauna Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako Batzordeko berezko kide izendatu zuten 2014ko irailaren 12an, eta egun horretatik aurrera Erakundearteko Batzorde Mistoko kide izatera igaro zen.

Era berean, bokaltza hauetan parte hartu du:

- . Antolamendu judiziala.*
- . Justiziaren digitalizazioa.*
- . Eraikinak – zerbitzu publikoa ematea. Bulego judiziala.*
- . Euskadiko Segurtasun Publikoa.*

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta jakinaraz bedi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "

1.4. BJLOren, 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT ERABAKIAK BERRESTEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO LAN ARLOKO SALAKO PRESIDENTETZA BETETZEKO DEIALDIARI BURUZKOAK.

Salak aho batez erabaki du 2026-04-21eko jarduneko presidente andrearen erabakiak berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikularekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa izangaiari dagokionez, honako hau erabaki da:

"Jakitera eman da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan-Arloko Salaren Presidentetza betetzeko deialdiaren ondorioetarako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari txostena eskatzen ziona. Jaso denez, erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat, premiazko arrazoiei dagokienez, honako hau erabaki da:

1- JUAN CARLOS BENITO-BUTRÓN OCHOA jauna Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan-Arloko Salako Magistratu espezialista izan da 2005eko azaroaren 15etik gaur egun arte.

2000. urteaz geroztik, eginkizun judizialak izan ditu autonomia-erkidego honetan destino hauetan:

2000ko abenduaren 26tik 2005eko azaroaren 8ra, Bilboko Lan-arloko 1 zk.ko Epaitegian.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa eman duen denbora normaltasun osoz bete du bere lana, eta ez dago jasota berari egotz dakioken atzerapen edo disfuntzioagatiko kexarik edo erreklamaziorik, diziplina-izaerako ikerketa irekitzea eragin duenik.

2025eko maiatzaren 9ko Gobernu Salaren bidez, Desgaitasunaren arloko ordezkari izendatu zen.

Gobernu Salak, 2025eko azaroaren 21ean, Jazarpen Protokoloaren ordezkari aholkulari konfidentzial izendatu zuen.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta jakinaraz bedi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "

Jaime Segalés Fidalgo hautagaiari dagokionez, honako hau erabaki da:

"Jakitera ematen da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan-Arloko Salako Presidentetza betetzeko deialdiaren ondorioetarako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari txostena eskatzen diona. Jaso denez, erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, presazko arrazoiei dagokienez, honako hau erabaki da:

JAIME SEGALÉS FIDALGO jauna 2004. urtetik ari da eginkizun judizialak betetzen autonomia-erkidego honetan, destino hauetan:

2004 eta 2009 urte judizialen artean, ordezkari Magistratu gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan-Arloko Salan.

2011ko ekainaren 10etik gaur arte, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Lan-Arloko Ataleko 6 zk.ko plazan magistratu gisa.

Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan magistratu gisa eman duen denbora normaltasun osoz bete du bere lana, eta ez dago jasota berari egotz dakioken atzerapen edo disfuntzioagatiko kexarik edo erreklamaziorik, diziplina-izaerako ikerketa irekitzea eragin duenik.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta jakinaraz bedi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran. "

Pablo Sesma de Luis hautagaiari dagokionez, honako hau erabaki da:

«Jakitera ematen da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Kalifikazio Atalaren aurreko jakinarazpena, Justizia Auzitegi Nagusi honetako Gobernu Salaren txostena eskatzen duena, Justizia Auzitegi Nagusi honetako Lan Arloko Salako Presidentetza hornitzeko deialdiaren ondorioetarako. Jaso denez, erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau erabaki da:

1.- PABLO SESMA DE LUIS jaunak Auzitegi Nagusiko Lan-Arloko Salako Magistratu-kargua betetzen du 1990eko ekainaren 27tik, titular gisa, 2024ko urriaren 1etik gaur egun arte.

. Euskal Autonomia Erkidegoan 1983tik aritu da eginkizun judizialak betetzen honako destino hauetan:

. 1983ko otsailaren 26tik 1984ko otsailaren 16ra arte, Getxoko Barrutiko epaitegian (Bizkaia).

. 1984ko martxoaren 1etik 1987ko martxoaren 6ra, Bilboko Barrutiko 6 zk.ko Auzitegian (geroago Bilboko Instrukzioko 8 zk.ko Epaitegian sartu zen).

. Otsailaren 23ko 317/1987 Errege Dekretuaren bidez, Magistratu kategoriara igo zen, eta Barakaldoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk.ko epaile plaza bete zuen.

. 1989an, Magistratu-epaile kargua bete zuen Bilboko 1. zk.ko Lan Magistraturan. Auzitegi Nagusi honen lurralde-eremuan Magistratu gisa eman duen denbora normaltasun osoz egin du lan, eta ez dago jasota atzerapenagatik edo disfuntzioagatik kexarik edo erreklamaziorik egon denik, diziplina-ikerketa irekitzea eragin duenik.

Jakinaraz bekio erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kalifikazio Atalari, eta jakinaraz bedi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran ".

1.5. BIZKAIKO PROBINTZIA AUZITEGIKO LEHEN ATALA INTEGRATZEKO ZERBITZU-EGINKIZUNA BERRITZEA.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko presidente andreak egindako proposamenaren berri eman zaio Salari. Aipatutako proposamena honetan datza: Yolanda Paredes Vázquezi zerbitzu-eginkizun bat luzatzea, funtzio aldatetekin, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Lehen Atalean integratzeko. Honela dio, hitzez hitz:

"REYES GOENAGA OLAIZOLA andreak, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko presidenteak, Probintzia Auzitegiko Lehen atalean (Zigor Arloko Atala) zerbitzu-eginkizuna berritzeko eta eginkizunak aldatzeko eskaerari dagokionez, txosten hau egin du:

AURREKARIAK

Lehenengoa. — 2026ko urtarrilaren 22an, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorraren 2026ko urtarrilaren 20ko Erabakiari jarraikiz, Bilboko Instrukzioko 3 zk.ko Auzialdiko magistratu Yolanda Paredes Vázquez andreak Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Lehen Atalean zerbitzu-eginkizunaz

jabetzea formalizatu zuen, funtzio-aldaketarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor-arloko Salan Juan Manuel Iruretagoyena Sanz magistratu jaunari zerbitzu-eginkizuna ematearen ondorioz.

Bigarrena. — Aurtengo apirilaren hamahiruan, aipatutako zerbitzu-eginkizuna berritzeko proposamena jasotzen duen txostena eskatu du Gobernu Idazkaritzak.

EGUNGO EGOERA

Magistratu komisionatua, Yolanda Paredes Vázquez andrea, Batzorde Iraunkorrek agindutako lana egiten aritu da, izendatu zutenetik, eta Probintzia Auzitegiko Lehen Atalaren funtzionamenduan sartu da, normaltasun osoz, eta behar bezala bete du aldi horretan esleitu zaizkion espedienteen eta ebazpenen esleipena.

Lehen Atalari atxikitako Justizia Administrazioaren letraduak jakinarazi duenez, karguaz jabetzen denetik gaur egun arte, magistratu komisionatuak hogeita hamazortzi epai eta prozedura amaitzeko berrogeita hamazortzi auto eman ditu, eta une honetan ez dago jasota eman gabeko ebazpenik.

ATALEKO LAN-KARGA

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Lehen Atalaren egoera zerbitzu-eginkizuna erabaki zen unekoa bera da, eta hutsik dago Juan Manuel Iruretagoyena Sanz jaunari dagokion magistratu-plaza, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor-arloko Salan zerbitzu-eginkizunetan baitago.

PROPOSAMENA

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko eta Lehen Ataleko Presidenta naizen aldetik, berariaz adierazten dut zerbitzu-eginkizuna berritzeko interesa dudala, gaur egun indarrean dauden baldintza berberetan.

Zerbitzu-eginkizuna betetzen ari den magistratuak, Yolanda Paredes Vázquez andreak ere adierazi du prest dagoela zerbitzu-eginkizunetan jarraitzeko sei hilabetez edo behar den denboraz, harik eta Juan Manuel Iruretagoyena Sanz magistratu jauna Probintzia Auzitegi honetara itzultzen den arte. Idazki honi erantsita doa bere eskabidea:

ESKABIDEA

Honengatik guztiagatik, ESKATZEN DUT:

Gaur egun Yolanda Paredes Vázquez andrea betetzen ari den funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna berritzea, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Lehen Ataleko lanpostu hutsa betetzeko. Izan ere, Juan Manuel Iruretagoyena Sanz magistratua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor Arloko Salan zerbitzu-eginkizunetan aritzearen ondorioz hutsik dago lanpostua, gaur egun indarrean dagoen zerbitzu-eginkizunaren baldintza berberetan, gutxienez sei hilabetez edo titularra bere lanpostura itzuli arte."

Salak erabaki du aipatutako proposamena bere egitea, eta, ondorioz, komisionatuak adostasuna eman duenez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna berritzeko, Yolanda Paredes Vázquezen alde, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Lehen Atalean jarraitzeko beste sei hilabetez, atal hori beharrezkoa izateko arrazoiek bere horretan dirautelako.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.2 artikulua arabera, Salak erabaki du proposamena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langile Judizialen Zerbitzura bidaltzea.

1.6. BJLOren 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT ERABAKIA BERRESTEA AUZITEGI GORENEKO KABINETE TEKNIKORAKO ZERBITZU-EGINKIZUNEN DEIALDIARI BURUZKOA, FUNTZIO-ALDAKETAREKIN.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko apirilaren 24an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluaekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

Jakitera eman da; «Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurreko jakinarazpenaren berri eman da; horren bidez, Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Kabinete Teknikorako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunaren eskaerari buruzko txostena eskatu da, Alfredo Valdés-Bango Soler jaunaren alde, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren ataleko titularra dena (2. zk.ko plaza, ordena zibila), merkataritza-arloan eskumena duena, espezialista-plaza duena. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan ezarritakoarekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216. eta 350. artikuluen arabera, honako txosten hau egitea erabaki da:

Zerbitzu-eginkizuna emateak arazo bat ekarriko du Gipuzkoako Probintzia Auzitegian, bi magistraturen baja medikoaren eta beste magistratu baten hurrengo lekualdatzearen ondorioz, bai eta atal horretan 2026ko ekainaren 30ean funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun bat amaitu izanaren ondorioz ere, eta haren luzapena Presidentetzako, Justiziako eta Gorteekiko Harremanetako Ministerioaren baimen ekonomikoaren zain dagoelako.

Horrela, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atalak bost magistratu ditu, eta, gaitzaren ondorioz, laguntza-neurri bat du. Funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna onartuz gero, magistratu bat eta laguntza-magistratu bat baino ez lituzke izango.

Horri gehitu behar zaio zerbitzu-eginkizunetan dagoen magistratuaren lanpostua betetzeko kanpoko ordezkapen batera jotzeak dakarren kostu ekonomikoa.

Azaldutako arrazoiengatik, eskatutako txostena kontrakoa da.

Eman horren berri Gobernu Salaren hurrengo bileran, eta jakitera eman Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.

Presidenteak hori erabaki, agindu eta sinatu du. Nik, jarduneko gobernu-idazkariak, horren fede ematen dut. "

1.7. GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO HIRUGARREN ATALEKO BI PROZEDURATAN EPAIAK EMATEARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA ETA TXOSTENA.

Salari jakinarazi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak bidalitako komunikazioa, Gipuzkoako Probintzia Fiskaltzaren jakinarazpenaren ondoriozkoa. Jakinarazpen horretan adierazten zen urtebete baino gehiagoko atzerapena zegoela Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Hirugarren Atalaren bi prozeduratan epaiak emateko.

2026-05-05ean Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andreak egindako txostenaren berri eman zaio Salari, honako hau dioena hitzez hitz:

«Aipatutako lehen prozedurari dagokionez (RPO 3015/20), ahozko judizioa 2025eko otsailaren 25ean egin zen, eta epaia 2026ko martxoaren 16an eman zen, nahiz eta dokumentu hori ez zen sinatu aurtengo ekitaldiko apirilaren 16ra arte. Gaur egun, dokumentu hori prozeduran pertsonatutako alderdi guztiei dagoeneko jakinarazi zaie.

Egoerari buruzko informazio-kontsulta egiteko bigarren prozedurari dagokionez (RPA 154/23), ahozko judizioa 2025eko ekainaren 17an egin zen. Ponentzia hori María del Carmen Bildarraz Alzuri andreari zegokion eta egun horretatik aurrera dagokion ebazpena ez du eman oraindik.

Gaur egun, aipatutako magistratua XXX dago, eta, beraz, ez da aurreikusten ebazpen hori nahiko denbora laburrean emango denik.

Horregatik, prozedura honek ebazpenik gabe daraman itxaronaldia eta herritarrek babes judiziala garaiz eta behar bezala lortzeko duten eskubidea balioetsita, Ana Isabel Moreno Galindo magistratuari ponentzia berresleitzea erabaki da, 203.2 artikularekin eta Botere Judizialaren Lege Organikoarekin bat datozenen arabera.

Zehaztu behar da, halaber, aipatutako Magistratuaren aldeko berresleipen hori egin dela auzitegi horretan jarraitzen duen Magistratu bakarra delako, hirugarren kideak, Juana María Unanue Arratibel andreak, erretiroa hartu duelako 2025eko irailaren 1ean.

Ponentzia berresleitzeko erabakia Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente honek hartu zuen 2026ko apirilaren 27an, eta alderdiek ez dute inolako aurkakotzarik edo errekurtsorik aurkeztu horretarako ezarritako epean. Beraz, magistratu horrek dagokion ebazpena emango du, ahalik eta lasterren».

Salak erabaki du Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andreak aurkeztutako txostena bere gain hartzea, Autonomia Erkidegoko fiskal Nagusiari helaraziz haren edukia.

1.8. NORBERAREN GAUZETARAKO BAIMENA EMATEKO PROZEDURARI BURUZKO GOBERNU-ESPEDIENTEA.

Salari jakinarazi zaio Arabako Fiskaltzak gobernu-espeditentea hasi eta artxibatu duela, bai eta Arabako Probintzia Auzitegiko presidenteak egindako txostena ere, 2026-04-07ko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren jurisdikzio-jarduerari buruzkoa.

Salari jakinarazi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidenteak 2026-07-05ean egindako proposamena, norberaren gauzetarako baimena emateko prozeduran jardunbide egokiaren erabakia hartzeari buruzkoa. Honela dio, hitzez hitz:

"AURREKARIAK

Lehenengoa.- Arabako Auzitegi fiskalburuak, 2026ko apirilaren 23an, erabaki bat hartu zuen 82/2026 gobernu-espeditentea hasteko. Erabaki horren bidez, Arabako Probintzia Auzitegi Presidentetzari txosten bat bidaltzea erabaki zen, Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegi Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atalean antzemandako gorabeherari buruzkoa. Txosten horretan adierazten denez, apirilaren 23an eta 24an epaiketa zibilak zeuden, plaza judizialaren titularrak adierazitakoak (hiru, apirilaren 23an, eta bost, apirilaren 24an). Epaiketa horiek 23an egin ziren, eta laguntza-epaileak egingo zituen (24an). Uste zuen horrela ez zirela betetzen errefortzu judizialeko jarduketa-planean diseinatutako helburuak, horrek justiziaren zerbitzu publikoan zuen eraginarekin, are gehiago genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimen babes judizial eraginkorraren behar espezifikoak kontuan hartuta.

Bigarrena.- Arabako Probintzia Auzitegi presidenteak txosten horren kopia bidali zion Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Presidentetzari, txostenean deskribatzen ziren gorabehera larrien aurrean.

Hirugarrena.- 2026ko apirilaren 24an, Auzitegi Nagusiko presidenteak gobernu-espeditente bat hastea erabaki zuen, eta gobernu-kudeaketako sistemari informazioa eskatu zion, Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegi Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataleko plaza judizialaren titularra baimenduta ote zegoen adieraz zezan, haren ordezkoa nor zen jakinaraziz, Gobernu Idazkaritzari eskatuz babes jurisdikzionalaren xede den jarduketa-plana aurkez zezala, eta Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegi presidentearen eta dagokion plaza judizialaren titularraren txosten bana aurkeztuz. Informazio hori guztia gobernu-espeditentean dago.

ARRAZOIBIDEAK

Lehenengoa.- Hasitako gobernu-espeditenteari erantsitako datuek honako hau adierazten dute:

- Jesús de Abajo jaunak 2026ko apirilaren 23an, 24an eta 27an norberaren gauzetarako baimen-eskaera aurkeztu zuela, eta honako inguruabar hauek adierazi zituen: i) ez zegoela guardian; ii) ikustaldiak edo seinalamenduak zituela, zehaztu gabe zeintzuk eta zenbat; iii) laguntza-eginkizunetan zegoen ordezko epaile Juan Angel Martín Belloso jaunak ordeztuko zuela.*

- Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegi presidente jaunak txostena egin zuen 2026ko apirilaren 8an. Bertan, honako hau adierazi zuen: i) baimena baliatzeko adierazitako aldian, ordezko errefortzu-funtzioak Juan Angel Martín Belloso epaileak egingo ditu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek 2025eko ekainaren 17ko bileran hartutako erabakiaren arabera, eta ii) horren ondorioz, ez dago inolako oztoporik aipatutako errefortzuko epaileak eskatutako baimena aipatutako datarako emateko, Atalak behar bezalako arreta ematen duela bermatzen baita, adierazitako baldintzetan.*

- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidenteak erabaki zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, baimena eman zuela eskatutako baldintzetan, eta lanpostu hutsa eskabidean adierazitako moduan bete behar zela.*

• *Bigarrena.- Arabako fiskalburuak aurkeztutako idazkia bi ikuspegitik aztertu behar da: i) 2026ko apirilaren 23an eta 24an Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataleko plazaren titularren absentiaren tratamenduari buruzkoa; ii) plaza horretan dagoen jurisdikzio-laguntzaren errendimenduan duen eraginari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egindako proposamenaren arabera.*

Lehen ikuspegitik, egoera formalki arautua da. Plaza judizialaren titularrak hiru eguneko baimena zuen bere gauzetarako, eta laguntza-epaileak beteko zuen. Bigarren ikuspegitik, bildutako informazioaren arabera, errefortzuko epaileak aurre egin behar izan zien jarduketa-planean adierazitako epaiketei eta baimenak zituen egunetan ezarrita zituen epaiketa zibiletatik eratorritakoei. Egoera horrek, zalantzarik gabe, laguntza-neurriaren eraginkortasunean eragiten du.

Hirugarrena.- Kasu honetan, plazaren titularra den magistratuak bere eskaeran adierazi zuen seinalamenduak, ikustaldiak edo deliberazioak zituela eskatutako aldian, baina ez zituen zehaztu. Era berean, Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko presidentearen aldeko txostena zuen, non adierazten baitzen berraztertzea zela jurisdikzio-zerbitzua, ordezko epailea laguntza-eginkizunetan ordezkatzen egonda. Elementu horiekin, eskatutako baimena eman nuen, sinadura digitalaren bidez, gobernu-sistemaren aplikazio telematikoan.

Laugarrena.- Norberaren gauzetarako baimenak emateko edo ukatzeko jardunbidea hobetu behar da, ahalik eta ondoen bateratu ahal izateko epaileak edo magistratuak legez aurreikusitako baimenak izateko duen eskubide indibiduala, ahalik eta distortsiorik txikienarekin sistema judizialaren funtzionamenduan edo laguntza jurisdikzionalako neurriarekin lortu nahi diren helburuen lorpenean. Ildo horretatik doa Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.4 artikulua bigarren paragrafoa, hiru eguneko baimenei dagokienez adierazten baitu baimena emateko betebeharra duenak (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteak) eskaera ukatu ahal izango duela seinalamendu, ikustaldi edo deliberazioekin bat datozenean, salbu eta justifikatzen bada eskaera ustekabeko edo premiazko arrazoi baten ondorio dela.

Horregatik, honako hau

HAU PROPOSATZEN DUT:

Epaile edo magistratu batek norberaren gauzetarako baimena eskatzen duen kasuetan, eskaera justifikatzeari buruzko apartatuan eskatuko da zehaztea, seinalamenduak, ikustaldiak edo eztabaidak dauden kasuetan, zehazki zer jarduketa dauden, eta, kasu horretan, adieraziko da baimena eskatzea justifikatzen duen ustekabeko edo presazko arrazoiak. Modu osagarrian zehaztuko da, halaber, ea plaza judizialak laguntza jurisdikzionalako neurririk duen, baimena emateak zer eragin duen neurri horrekin lortu nahi diren helburuak lortzeko. Horrela, kalitate goreneko informazioa izango da baimena eskatutako baldintzetan baimentzeko edo ez baimentzeko erabakia hartzerakoan.

Halaber, eskatzen dut, erabaki hau hartuz gero, Auzialdi Auzitegiko Probintzia Auzitegi eta Justizia Auzitegi Nagusi guztiei jakinaraz dakiela, BJLOren 162. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari horren berri eman dakiola ".

Salak onartu egin du Presidente jaunaren proposamena, horrelako baimenak emateko praktika berria ezartzeko seinalamenduak daudenean. Probintzia-auzitegietako presidenteei eta Auzialdi Auzitegietako presidenteei helaraz bekie.

Jakinaraz bekie edukia Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskal Nagusi andreari.

1.9. BORONDATEZKO ORDEZKAPENA ESKATZEA.

Sara Carrión de Castro andreak, Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Instrukzioko Ataleko 4 zk.ko Plazaren epaile titularrak, aurkeztutako eskaeraren berri eman zaio Salari, Barakaldoko eta Bilboko barruti judizialetako Instrukzioko Ataletarako, zigor-arloko jurisdikzioan, borondatezko ordezkapenen urteko planean sar dezan.

Salak erabaki du eskabidea bertan adierazten den moduan aurkeztutzat jotzea, behin-behinean onartzea eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaltzea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 210.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

1.10. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, ZERBITZU-EGINKIZUNAK BERRITZEARI ETA EGINKIZUNAK ORDEZTEARI BURUZKOA.

Salari jakinarazi zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzordeak 2026ko apirilaren 21eko bileran hartutako erabakiaren berri. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor-arloko Salako titularra den Ana Belén Iracheta Undagoitia andrearen aldi baterako absentzia betetzeko neurri bat erabaki da, hau da, zerbitzu-eginkizuna berritzea, eginkizunak aldatuz, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko 1 zk.ko Atalaren titularra den Juan Manuel Iruretagoyena Sanz jaunari.

Sala jakinaren gainean dago.

1.11. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, LURRALDE-ATXIKIPENENKO EPAILEA IZENDATZEARI BURUZKOA.

Salari jakinarazi zaio Auzitegi Nagusiko presidenteak 2026ko apirilaren 16an hartutako erabakia, Lurralde-atxikipeneko Epailea izendatzeari buruzkoa. Honela dio hitzez hitz:

"AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2026ko apirilaren 21ean, gaixotasun-lizentzia baten ondoren, Donostiako Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 4.zk.ko Plazaren titularra bere jurisdikziora itzultzea aurreikusten da. Gaur egun, Lurralde-Atxikipeneko GORKA DE LA CUESTA BERMEJO epaile jaunak betetzen due.

BIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentearen erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erabilgarri dauden plazak eskaini zitzaizkion, eta lehentasun-hurrenkeraren arabera atxikitze eskatu zuen, honela: 1.- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 3. Atala; 2.- Tolosako Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko 3 zk.ko Plaza; 3.- Bergarako Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta

Instrukzioko Ataleko 4 zk.ko Plaza; 4.- Irungo Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 4 zk.ko Plaza; eta 5.- Eibarko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 2 zk.ko Plaza.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- BJLOko 347 bis 2 artikulua ezartzen du lurralde-atxikipeneko epaileek beren jurisdikzio-eginkizunak beteko dituztela hutsik dauden plazetan edo titularra edozein arrazoiengatik falta den plazetan. Salbuespen gisa, errefortzu-eginkizunak betetzeko deitu ahal izango zaie, 5. apartatuan ezarritako baldintzetan. Zein justizia-auzitegi nagusiren mende dauden, auzitegi horretako presidenteak izendatuko ditu eginkizun horiek, eta, ondoren, dagokion Gobernu Salari emango dio horren berri. Gauza bera dio 2016ko azaroaren 24ko erabakiaren bidez onartutako Lurralde-Atxikipeneko Epaileen Estatutua garatzeko Erregelamenduaren 6.1 artikulua.

BIGARRENA.- Gorka de la Cuesta Bermejo jaunak egindako eskaera kontuan hartuta, hutsik dauden plazak eskaini ondoren edo titularrak luzaroan absente daudenean, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 3. Atalari atxikitzen zaio.

EBAZTEN DUT

Gorka de la Cuesta Bermejo jauna izendatzea Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 3. Atalean jurisdikzioa izan dezan 2026ko apirilaren 29tik gure legerian aurreikusitako edozein mekanismo juridikoren bidez plaza hori bete arte.

Gobernu Salari eman bekio izendapen horren berri.

Erabaki hau interesdunari jakinarazi behar zaio, eta ohartarazi erabaki honen aurka errekurtsioa jarri ahal izango dela, Auzitegietako Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 59. artikuluan eta 14. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera. "

Sala jakinaren gainean dago.

1.12. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, LURRALDE-ATXIKIPENENKO EPAILEA IZENDATZEARI BURUZKOA (2).

Salari jakinarazi zaio Auzitegi Nagusiko Presidentetzak 2026ko apirilaren 21ean hartutako erabakia, Lurralde-Atxikipeneko Epailea izendatzeari buruzkoa. Honela dio hitzez hitz:

"AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2026ko apirilaren 22an amaitu zen FORTUNATA CECILIA OSMA CASTELLANOS Lurralde Atxikipeneko Epailearen izendapena, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataleko 2 zk.ko Plazan, titularrari eman zitzaion lan-kargaren % 50eko murrizketa amaitzen zitzaiolako.

BIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidenteak hartutako erabakiaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan erabilgarri dauden plazak eskaini zitzaizkion, eta lehentasun-ordenaren arabera atxikitze eskatu zuen, honela: 1.- Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Atala, 13 zk.ko Plaza; 2.- Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Atala, 3 zk.ko Plaza; 3.- Getxoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Atala 4 zk.ko Plaza.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- BJLOko 347 bis 2 artikulua ezartzen du Lurralde Atxikipeneko Epaileek beren jurisdikzio-eginkizunak beteko dituztela hutsik dauden plazetan edo titularra edozein arrazoiengatik falta den plazetan. Salbuespen gisa, errefortzu-eginkizunak betetzeko deitu ahal izango zaie, 5. apartatuan ezarritako baldintzetan. Zein justizia-auzitegi nagusiren mende dauden, auzitegi horretako presidentek izendatuko ditu eginkizun horiek, eta, ondoren, dagokion Gobernu Salari emango dio horren berri. Gauza bera dio 2016ko azaroaren 24ko Erabakiaren bidez onartutako Lurralde Atxikipeneko Epaileen Estatutua garatzeko Erregelamenduaren 6.1 artikulua.

BIGARRENA.- Fortunata Cecilia Osmá Castellanosen eskaera aintzat hartuta, hutsik dauden plazak eskaini ondoren edo titularrak luzaroan absente daudenean, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 13 zk.ko plazarari atxikitzen zaio.

EBAZTEN DUT

FORTUNATA CECILIA OSMÁ CASTELLANOS LAE andrea izendatzea Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Atalean jurisdikzioa izan dezan (13 zk.ko Plazan), 2026ko maiatzaren 4tik gure legerian aurreikusitako edozein mekanismo juridikoren bidez plaza hori bete arte.

Gobernu Salari eman izendapen horren berri.

Erabaki honen berri eman interesdunari, eta ohartarazi erabaki honen aurka errekurtsoa jarri ahal izango dela, Auzitegietako Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 59. artikuluan eta 14. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Sala jakinaren gainean dago.

1.13. PRESIDENTE JAUNAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, LURRALDE-ATXIKIPENeko EPAILEAK IZENDATZEKO LUZAPENARI BURUZKOA.

Salari jakinarazi zaio Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek 2026ko apirilaren 21ean hartutako erabakia, Lurralde Atxikipeneko Epaile andrea izendatzeari buruzkoa. Honela dio hitzez hitz:

"AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Lurralde Atxikipeneko Epaile diren SUSANA RIVERO SANCHO andreak eta HECTOR RUBIO NEGUERUELA jaunak jurisdikzioan dihardute Bilboko Auzialdi Auzitegiko Zigor Arloko 7 zk.ko plazan – kasu honetan, urte bat azken berritzetik – eta Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 12 zk.ko plazan, hurrenez hurren, 2026ko apirilaren 14ko erabakiaren bidez, lehiaketa deitu zen Bizkaiko Lurralde Atxikipeneko epaileentzat eskaini beharreko plazak betetzeko.

BIGARRENA.- Lehiaketa hasita, bai SUSANA RIVERO SANCHO andreak bai HECTOR RUBIO NEGUERUELA jaunak, egungo destinoetan jarraitu nahi dutela adierazten dute, hau da, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Zigor Arloko Ataleko 7. zk.ko Plazan eta Bilboko Auzialdi Auzitegiko Atal Zibileko 12. zk.ko Plazan, hurrenez hurren.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- BJLOren 347 bis 2 artikulua ezartzen du Lurralde-Atxikipeneko Epailleek beren jurisdikzio-eginkizunak beteko dituztela hutsik dauden plazetan edo titularra edozein arrazoiengatik falta den plazetan. Salbuespen gisa, errefortzu-eginkizunak betetzeko deitu ahal izango zaie, 5. apartatuan ezarritako baldintzetan. Zein justizia-auzitegi nagusiren mende dauden, auzitegi horretako presidenteak izendatuko ditu eginkizun horiek, eta, ondoren, dagokion Gobernu Salari emango dio horren berri. Gauza bera dio 2016ko azaroaren 24ko Erabakiaren bidez onartutako Lurralde Atxikipeneko Epailen Estatutua garatzeko Erregelamenduaren 6.1 artikulua.

BIGARRENA.- Aintzat hartu da Susana Rivero Sanchoren eta Héctor Rubio Negueruelaren bi izendapen horiek luzatzea beren egungo jurisdikzioetan, hau da, lehenengo kasuan, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Zigor Arloko Ataleko 7 zk.ko Plazan, eta bigarrean, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 12 zk.ko Plazan, aurreikusitako mekanismo juridikoen arabera plaza horiek bete arte.

EBAZTEN DUT

Lurralde Atxikipeneko Epaille hauen izendapena luzatzea erabakitzea: SUSANA RIVERO SANCHO andrearena, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Zigor Arloko 7 zk.ko Plazan, eta HECTOR RUBIO NEGUERUELA jaunarena, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 12 zk.ko plazan, harik eta plaza hori gure legerian aurreikusitako edozein mekanismo juridikoren bidez betetzen den arte.

Gobernu Salari eman bekio izendapenaren luzapen horien berri.

Erabaki hau interesdunari jakinarazi behar zaio, eta ohartarazi erabaki honen aurka errekurtsoa jarri ahal izango dela, Auzitegietako Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 59. artikuluan eta 14. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera."

Sala jakinaren gainean dago.

1.14. BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIKO PRESIDENTEAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, EBAZPENA EMATEKO ESKUMENARI BURUZ PLANTEATUTAKO AUZIARI BURUZKOA.

Salari jakinarazi zaio Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidenteak 2026ko apirilaren 30ean hartutako erabakia, Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Atalak helarazitako gaiari buruzkoa (9. zk.ko Plaza). Honela dio, hitzez hitz:

«Bilboko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko Ataleko 9 zk.ko Plaza Judizialeko Justizia Administrazioaren magistratu titularrak eta letraduak eskatu dute zehaztu dadila pertsona bakarreko organo horretan ebazpen zehatz bat emateko eskumena, ordezko epaile batek esku hartu baitu prozeduran.

Auzialdi Auzitegiko presidenteak, eta lehenago Epaille Dekanoak, ez du eskumenik planteatutako arazoa nork ebatzi behar duen erabakitzeke, jurisdikzio-arazo bat baita, froga osoa edo zati bat egin ahal izan duenari buruzkoa. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 168. artikulua ez du gai horri buruzko berariazko esleipenik jasotzen.

Ondorioz, plaza judizial berean ebatzi behar den zerbait eskatzen da, hargatik eragotzi gabe Gobernu Salari horren guztiaren berri ematea, ordezeko epailearekin agerian jarritako desadostasunaren berri emateko.

Jakinaraz bekie organo judizialari eta Gobernu Salari. "

Salak jakintzat eman du Bilboko Auzialdi Auzitegiko presidenteak hartutako erabakia.

1.15. JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILAK EMANDAKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GENERO-INDARKERIAREN ETA SEXU INDARKERIAREN ESKUALDEKATZEARI BURUZKOA.

Salari jakinarazi zaio Justizia eta Giza Eskubideen Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren eskualdekatzeari buruz egindako txostenaren berri, eta esan zaio ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegiko Gobernu Salaren ekimenaren ondorioetan jasotako eskualdekatze-ekimenaren aurka (ondorio horiek 2026-03-06ko Osoko Bilkuraren 1.1 Erabakian daude zerrendatuta). Honela dio, hitzez hitz:

< < 1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren 2026ko martxoaren 6ko Erabakiaren bidez erabakitako eskualdekatze-ekimenari buruzko txostena eskatu zitzaion Justizia eta Giza Eskubideen Sailari.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren ekimenak eskualdekatzeko hainbat aukeraren azterketa oso osoa biltzen du. Hainbat faktore hartzen ditu kontuan, hala nola genero-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arloan eskumena duten epaitegien lan-karga, arlo horretan eskumena duten ataletako guardia-zerbitzuen araubidea, Euskadin dauden baliabide publikoak, bai erakunde-sisteman bai beste sistema publiko batzuetan, bai eta eskualdekatzeko hainbat aukera ere Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako bakoitzean. Amaitzeko, proposamen zehatz batzuk egiten ditu:

"IX.- Ondorio gisa

Bizkaiko Lurralde Historikoa eskualdeka sailka daiteke, Bilboko barruti judizialeko barruti judizial guztiak elkartzuz. Horrek lau plaza judizial izango lituzke, Barakaldoko egungo Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataletakoak (bi plaza) eta Bilbokoak (bi plaza). Beraz, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atala izango litzateke, lau plaza judizialekin. Atal horrek Bilbon izango luke egoitza, lurralde historiko osora hedatuko luke jurisdikzioa, eta zaintza-araubide espezifikoak izango luke. Guardiako zerbitzu espezifiko horren ordutegitik kanpo, premiazko jarduketak eta babes-aginduen edo bestelako kautela-neurrien eskaeren ondoriozkoak delitua egin den lekuko Auzialdi Auzitegietako Instrukzioko Atalek edo Atal Bakarrek hartuko lituzkete beren gain.

• Bizkaiko Lurralde Historikoa eskualdekatzen bada, beharrezkoa izango litzateke Bilboko Auzialdi Auzitegiko Zigor Atalean dagoen planta judiziala handitzea, beste plaza judizial batekin (8.zk.ko plaza), genero-indarkeriako eta sexu-indarkeriako delituak epaitzeko eskumen jurisdikzionala duena (esklusiboa edo konkurrentea).

• Arabako Lurralde Historikoa eskualdeka bana liteke, Amurrioko barruti judiziala Gasteizko barruti judizialera bilduta, baldin eta Gasteizko Emakumeen aurkako Indarkeriaren Atalak bi plaza judizial baditu. Bigarren plaza judiziala Lurralde Atxikipeneko epaile bat eraldatuz sor daiteke. Beraz, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Atala izango litzateke, bi plaza judizialekin. Atal horrek Gasteizen izango luke egoitza, eta bere jurisdikzioa Lurralde Historiko osora hedatuko luke. Ez luke guardia-araubide espezifikorik izango, eta, beraz, entzunaldi-ordutegitik kanpo, delitua egin den lekuko Auzialdi Auzitegiko Instrukzioko Atalek edo Atal Bakarrek izapidetuko lituzkete premiazko jarduketak eta babes-aginduak edo bestelako kautela-neurriak.

